

Maribel Vaquero

Senaturako Gipuzkoako hautagaia / Candidata al Senado por Gipuzkoa
Bilbao 2019-11-08

Balioko duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.
El único discurso válido será el pronunciado por la oradora en el acto.

Botoa eskatzen hasi aurretik, eskerrak eman nahi ditut. Mila esker, bihotzez, egun hauetan, herriz herri, euripean, laguntza, babesa eta bultzada eman diguzuen alderdikide eta lagun guztioi. Zuek guztiok ere Euskal taldea osatzen duzue!

Euskal talde indartsu bat behar dugu Madrilen, horretarako, herritarrak deitzen ditugu, gurekin, Eusko Alderdi Jeltzalearekin, konpromisoa har dezaten, Euskadiren eta Euskal Herritarren borondatea eta eskubide kolektibo, zein indibidualak, irmotasunez defendatzeko!

Arduraz jokatzeko eta konpromisoa hartzeko unea da. Garai zailak bizi ditugu. Eta aldiz, erronka handiak ditugu, eta havei aurre egiteko arduraz jokatu dugula hitza ematen dugu!

Estatuko alderdi politikoak hor dabilta mokoka, arazo politikoa konfliktu bihurtuz, boto eske, zein baino zein neurri antidemokratikoagoak proposatuz, zein bestea baino espainolagoa, 'patriotagoa' den azaldu nahian. Gorroto mezuak zabalduz, edo hauen aurrean entzungor azalduz. Gazteei Konstituzioa irakasteko asignatura ezarri ordez, hobe lukete; Abascal, Riverak eta konpainiak, errespetua, etika eta demokraziari buruzko masterra egingo balute.

Ante tanto ataque a lo que somos y representamos exigimos respeto. Respeto a nuestras instituciones, nuestros derechos históricos y a lo que este Pueblo libremente y democráticamente decida. No queremos privilegios, exigimos respeto!

Este domingo, mandemos un mensaje claro y rotundo, llenemos las urnas de votos al Partido Nacionalista Vasco. Ez dugu etsiko! Batu ditzagun gure indarrak herri bezala dagokiguna defendatzeko eta aurrera egiteko! Esan diezaiozun Demokraziari 'bai'! Azaroaren 10ean Euskadiren aldeko botoa eman dezagun! Igandean, Eusko Alderdi Jeltzalea! Gora Euskadi Askatuta!!